

Egiaztapenak eta zalantzak

Ekainean ETA erakunde armatuak agiri baten bidez su-etenaren etena iragarri zuenean egiaztapenak eta zalantzak etorri zitzaizkidan batera burura. Lehendabiziko egiaztapena zera izan zen: hemen ez da prozesu politikorik. Esperotakoa zen etena, iazko udazkenaz geroztik izandakoak gogoan. Hortaz, gauzak argitu egin dira: hemen ez da prozesurik eta inork, ez hemen ez hango, ez dezala ustezko prozesu baten lilurapean sustrairik gabeko uzta bildu. Beste egiaztapen bat: kondenatuta gaude, nahitaez, gatazka politikoa politikaren bidez gainditzera, hemengo eragileen arteko prozesu politikoak ez baitu alternatibarik; bera da konponbide iraunkor bakarra. Hortaz, oraingo saiakerak huts egin duenez erruak eta errudunak ondo lekutu, batean zein bestean, eta bide berriak arakatu beharko dira hurrengo saiakerak oinarri egokiak izan ditzan, bai eduki politikoetan, bai alde guztien konpromisoetan eta bai gizarte zibilaren eskuhartzean ere, azken hau ikusle hutsa izan ez dadin; abangoardien garaia pasatzen lagundu behar dugulako, behingoz.

Hortaz, erakunde armatuak azken hilabeteotako agirietan behin eta berriz bere egin duen “erantzuteko eskubide” horrek bazter utzi du, une garrantzitsuetan, sarri berak aipatua izan duen “gehien-go sozial” horren prozesu politikoaren aldeko apustua. Bestera esanda, Euskal Herrian esparru politiko berri baterako jauzia egiteko indar sozial nahikorik ez badago indar armatua sobera dago, eta jauzirako indar sozial nahikorik badago berari dagokio politikoan erantzutea, irmo erantzun ere. Akabo oholtza gaineko maisutza! Pedagogiazko hezkuntza partehartzailea dagokigu subiranotasunaren aldeko! Gatazken inguruko estrategiatan garpes iraunkorra esaten den zer horren ingurukoetan legez zera beharko luke abiapuntu izan:



INIGO AZKONA

zerk/zeinek zer/zein mugatu? Horrixe bai erantzun beharra.

Beste egiaztapena zera izan nuen su-etena eteten zuen oraingo agiria, iaz sua eten zuen agiriarekin alderatu nuenean: bai zaila dela gure esparru politikoan kontzeptuak behingoz zehaztea! Zerikusi gutxiegi orduko eta oraingo agiri-testuen artean! Hortaz, konponbidearen funtsezko korapiloetariko bat aukera politiko guztiak, burujabetzarena barne, hemengo gizartearen erabakiaren esku utziko dituen esparru politikoa lortzea denean, eta bazen orduko agirian, ez da zentzuzkoa oraingoan independentzia bera ia

ezinbesteko mugatzat jartzea armak uzteko. Prozesuak argitasuna behar du, kontzeptuetan ere. Inork ez dezala hitzotatik ondorioztatu oraingo saiakerak huts eginaren errua erakunde armatuaren orubean etengabe jartzen duten horiekin kokatzen naizenik, ezta horietan ere, gaur gaurkoz banalerro politikoa bakarra eta lar zabala delako. Nor bere eremuan, baina kritiko, halabeharrez.

Eta zalantzak, gehiegi. Zelan gauzatuko du erakunde armatuak “erantzuteko eskubidea”? Eta hori baino lehen, zer egingo dute prozesuari berrekitearen alde dauden eragileek, are gehiago Estatu udaberriko hauteskundeetara arte makila erabiltzen hasi denean, mintzakideak espeteratuz? Ez al dute horiek erantzuteko eskubidea politikatik bideratu behar? Ala nor bere hauteskunde zurrumbiloan da sartua? Azkenean pentsatu beharko dut hauteskundeak oztopo bihurtu direla benetako demokrazia eskuratze-ko. Baina hemen ez da gauza handirik asmatu behar, funtsezkoa asmatuta dago; hona ekarritako aditu guztiek dute esana: politikaren bidez gainditzan dira gatazka politikoak, eta horretan legeak lagundu egin behar du, ez oztopatu, horretarako aldatu behar bada ere.

Horretan sinestea falta zaie askori. Baina beste biderik ez dago. ■

«

Zelan gauzatuko du erakunde armatuak ‘erantzuteko eskubidea’?

Eta hori baino lehen, zer egingo dute prozesuari berrekitearen alde dauden eragileek, are gehiago Estatu udaberriko hauteskundeetara arte makila erabiltzen hasi denean, mintzakideak espeteratuz?

»

